

Post-scriptum: Ez dago amildegirik

Ainhoa Ezeiza

Hizkuntzaren jabe-gabetzeaz hausnartzen hasi ginenean, euskara nuen buruan etengabe, urte askotan helduak euskalduntzen eta alfabetatzen aritu ondoren (1988-2007) eta gero unibertsitatean komunikazio gaitasunaren garapenean lanean, euskararen bizi-raupenaren zailtasunekin bizitza osoan kezkatuik... kosta egiten zait, ba, pauso bat ematea desinstituzionalizaziorantz eta bereziki desestatalizaziorantz. Zer gertatuko litzateke euskara estatua-ren laguntzatik askatuko bagenu, gaur egun teoriar bere defentsan lanean ari diren erakundeetatik libratuko bagenu? (legedia, derrigorrezko eskolaratzea, normalizazioa, diskriminazio positiboa, finantziazioa, formazioa...). Ideia horrek sentiarazten zidan amildegira joango ginatekeela pauso hori emanaz gero...

Baina amildegi faltsua da. Ez dago amildegirik, besterik gabe ez dugu ikusten non zanpatu, ez dakigu ondo begiratzen... Indiana Jonesen filman gertatzen zen bezala, ez baita benetako amildegia, pausoa eman baino ez dago, bide berriak zabaltzeko.

Sorospena ala horizontalizazioa eta elkar laguntza?

Jangela sozialak, haur pobreentzako jangelak... Duela hiru urte, Magisteritzako hirugarren mailan izandako eztabaida tentsoenetako bat haur pobreei laguntzeko jangela sozial bat antolatzeko proposamenari lotutakoa izan zen. 2014an albiste izan zen hainbat eskola zabaldu zirela haur pobreek zer jan eduki zezaten, eta bide batez, hezkuntza jarduerak egin eurekin, eta proposamena zen halako bat antolatzea euren herriko eskola batean. Proposatu zuen taldeari ez zitzaion krudela iruditzen familia pobreak behartzea euren seme-alabak uda hezkuntza erakunde baten barruan pasaraztea, jatearen truke. Ez zuten, ezta ere, krudela ikus-

ten hurrei jaten ematea eta ez euren gurasoei, aiton-amonei, osaba-izebei... zeozergatik, badago jendea jende gosetua adinaren arabera bereiztu egiten duena...

Larrialdi egoeretan, larrialdiko neurriak. Eta gosetearen aurrean, egin behar dena da sorospena, pertsona zehatzak seinالاتu eta identifikatzea, euren egoera aztertzea eta arrisku-mailaren arabera sailkatzea, harreman bertikal bat eraikiz salbatzeko, zeinetan bi talde sortzen diren, «jaten ematen duena eta jaten duena», eta azken honek esker ona erakutsi behar du hain keinu solidarioaren aurrean.

Ezin dira eta gauzak bestela egin... larrialdia da... hobe da ezer ezer ez baino... eske...



1. *irudia*. Jatekoa prestatzeko forma ezezik, jateko modua ere horizontala izan daiteke («*cuchará' y paso atrás*»).

Beharbada hiriko jende (burges)ok ez ditugu lapiko kolektiboak ezagutzen, jatekoa denon artean prestatzea bakoitzak ahal duena emanaz (janaria, prestatzeko lana, lekua, garbiketa...) eta harre-

man horizontalak, konfiantza kolektiboa, sormena eta elkar laguntza sustatuz. «*Cuchará' y paso atrá'*», goilarakada bat hartu eta gainerakoei hartzen utzi («*intzak ma ta jangouk me*» esapidearen juxtu kontrakoa). Beharbada, hiriko jende (burges)ak ez du gogoan nola berpiztu ziren egiteko modu horizontal hauek besteak beste 15Mko Sol-eko mugimenduetan... eta mugimendu horietatik bultzatutako pertsona horiek ere jarraitzen dute laguntza bertikal sorosleak sustatzen... ez zuten ulertu? ez ziren bertan izan?

Beldurra ematen du autogestiorako pausoa emateak, baina ez da horren zaila, ez da utopikoa... gertatu delako eta gertatzen ari delako!!!

Euskara desestatalizatzea

Euskararen alde lanean hainbeste urte pasa ondoren, euskara irakatsiz, zabalduz, normalizazioan lagunduz, transmitituz, ikerituz... argi daukat ez zaidala osasuntsua iruditzen norantz goazen (bultzaka), ez da osasuntsua euskararen biziraupenerako eta are gutxiago hiztunontzat. Hizkuntza hiztunon gaineratik jartzea ikuspegi instituzionalistatik soilik uler daiteke (hau da, kontrolaren ikuspegitik). Horren garrantzitsua da hizkuntza ikastea eta hizkuntzalaritzaren alderdiak ezagutzea... azkenean, gero eta baztertuago dago euskara eguneroko bizitzan, erabilera erabat instituzionalizatuaren alde.

Errua estatu zanpatzaileek dute, telebistak, masa-kulturak, egoera diglosikoak... baietz, beti dago besteei leporatzea; baina euskara aldaera batu estandarizatura mugatzea, idatzizko formetan oinarritzea, zuzentasun gramatikalerako presio handia ezarri, ahozko aldaera ez normalizatuak etengabe gutxietsiaz, hizkuntzaren hautapena harreman formak baino garrantzitsuagoa izanik... uste dut elementu horiek guztiak nahikoak direla ondo

ez goazela susmatzeko¹. Haur eta gazte gutxi ezagutzen dut Donostialdean (teorian nahiko ingurune euskalduna) euskaraz mintzatu nahiago dutenak gaztelaniaz baino, eta ezaguna da euskararen aldeko festetara sutsuki doan jende euskaldunak bertan gaztelaniaz diharduena.

Amonak (berez santandertarra) esan zidan ezin nintzela nire gelako mutil batekin ezkondu bere abizenarengatik errioxarra izango zelako eta euskaldun batekin ezkondu behar nuelako. Nik orduan 8 urte nituen. Gogoan dut errieta ederra egin zidala kontu horren inguruan, eta nik amona maite nuenez noski, pentsatu nuen arrazoi izango zuela, gaizki egongo zela erdaldun batekin ezkontzea. Ados, garrantzirik gabeko pasadizu bat baino ez da. Baina euskarari buruzko biltzar garrantzizko batean «hizkuntz arnaguneen» inguruan eztabaidatu zen, eta zeinen garrantzitsua zen arnagune hauek babestea, erdaldundu ez daitezten. Bertan, zenbaitek kritikatu zuen (modu ezkutuko edo agerikoagoan) herri euskaldun horietako hainbat jende «jende erdaldunarekin» ezkondu izana, «hizkuntz galera» eragiten zutelako. Benetan, hau ez doa ondo.

Babestu nahi dugunaren estatalizazioak delegatzea eragiten du, urruntzea eta Estatuarekiko mendekotasuna areagotzea (estatu espainiarra, frantsesa, euskal estatua, gipuzkoarra, donostia-rra...). Dirulaguntzen mendeko egiten gaitu, egitura funtzionarekiko mendeko (hizkuntz normalizatzaileak, euskara zerbitzuak, itzultzaileak, orraztaileak, aztertzaileak...), maisu-maistren eta formatzaileen mendeko... alegia, sorospen harreman bertika-

1 Euskararen egoeraren inguruan aho adina iritzi badaude ere, esaterako bi artikuluauek interesgarriak dira eztabaida honetarako, biak Argia aldizkariko blogetatik hartuak: Iñaki Martinez de Lunaren «Maila bat gorago» (2015/06/14): <http://bit.ly/1GiQnRM> eta Txerra Rodriguezen «Pantaila aldatzeko sasoia da» (2017/07/25) <http://bit.ly/2uEMNSp>

lak sustatzen ditugu, euskara objektu bihurtzen dutenak (ikerke-ta-objektu, ikas-objektu), eta hartara, bere testuinguru natural, sozial, kultural, pertsonalaren testuingurutik kanporatzen da.

Bere irakaskuntza erraztearren, egituratu egin behar da, lojika gramatikalak asmatu, aditz-taulak... eta horrela, «ondo» hitz egiteko gaitasun eta trebetasun kognitibo nahikoak garatzeko urteak pasa behar dira ikasten eta lantzen. Lojika faltsua da, noski, idatzizko forma estrukturalistetan oinarritutako ikasketak baitira, zerikusirik ez ahozkotasunarekin, ahozkotasuna alojikoak baita, soinu-musikala, emozionala, partekatua, soziala, bizia eta aldakorra.

Kontrollean beste pauso bat emanaz, idatzizko lojika horiek berauek dira ezagutu eta ikasi behar ditugunak berdin hizkuntza ikasleek zein jatorrizko hiztunek. Nire semea institututik itzultzeak esanez ez dakizkiela aditzak euskaraz, jaiotzetik mintzatzen delarik, gaiaren absurdoa erakusten du. Hiztunei sinestaraztea ez dakitela euren ama-hizkuntza soilik ez direlako gai euren hizkuntza taula estruktural hauen arabera ulertzeko... horrek argi erakusten du nola ari den hizkuntza jendearengandik urruntzen.

Hizkuntzaren kontrol instituzionalak, Estatuarekiko eta bere arauarekiko mendekotasun hori eragiten duenak, osagarri bat du azken urteotan sustatzen aritu dena: euskara masa-kulturaren txertatu beharra. Euskarak prestigio soziala izan dezan, unibertsitatera iristeaz gain (kultura instituzionala), nahitaezkoa da «*Los 40 principales*» euskaraz egotea, «*Gran Hermano*» euskaraz, «euskal kulturaren industria» indartzea...

Eta zergatik ez da lan egiten ari kultura herrikoietatik? Kultura herrikoiak, hizkuntzen ingurune sozio-kultural naturalak izanik, alojikoak dira, anitzak, partekatuak, nahastuak, kaotikoak, aldakorrak... ez dira estatu kontrolatzailearen interesekoak. Hizkun-

tzak perfektu iraun behar du, ondo zaindu behar da arian-arian erabakiz instituzioetatik (Euskaltzaindia eta enparauak) zer dagoen ondo eta zer gaizki. Euskara ondo gorde behar den altxorra da, zaindu, ikasi eta landu egin behar dena, identifikatu, sailkatu, bereiztu... baina, horrek zer ikusi dauka hiztunekin eta hizkuntzaren erabilera naturalarekin?

Euskara desestatalizatzea estatuaren kontrolpetik ateratzea da, jendeari itzultzeko. Bai, baina estatuaren babesik gabe... zer geratuko da? Jende askok uste du babes eta zaintza hori gabe galdu egingo dela. Horrek konfiantza eskasa erakusten du hiztunengan, esan nahi baitu Estatuak interes handiagoa duela hizkuntzaren defentsan hiztunek eurek baino... baina, mendetasun horren jatorria euskararen biziraupena Estatuaren esku utzi izana bada, hiztunok hizkuntzarekiko ardura, eskubidea eta gozamina hartu beharreen? Ez gara hizkuntza itotzen ari, salbatu nahian? Ez al dugu ikusten hizkuntza salbatzeagatik gure hizkuntzaren hautapena lehenesten ari garela gure arteko harremanen aurrean?... Benetan al da garrantzitsuagoa kapitalismoa euskaraz egotea kultura herrikoiak sustatzea baino?